

# HAUSNARKETAK

**Mikel AZKARATE PEREZ**

Erreterian burutu beharreko euskararen normalkuntza prozesuari dagokionez, bi dira antzeman ditudan klabeak: udal berriaren osaketa eta SIADECO enpresak fase desberdinetan egin duen txostena (datu bilketa, berorien interpretazioa eta proposamenak).

Lan hartan azaldutako datu batzu aipatu ditut:


\* Hizkuntzaren erabilpena % 7,1 eko indizera jaitsi da, alegia, 100 pertsonatik soilik 7k egiten dute euskaraz leku publikoetan. Siadeco txostenean "euskararen presentzia baino, euskararen latentzia" hitzegitea nahiago izan da.

\* Irakaskuntzan agertzen diren indizeak ere kezka-garriak dira, euskal eredu-tako matrikulazioa urria da: % 16,9a D ereduan eta % 9,5a B ereduan.

\* Euskararen tipologiari dagokionez, Erreterriako Udalerriko heren batek ezagutzen du euskara edo euskalduna da; beste bi herenak erabat erdaldunak dira. Datu nabarmena ondokoa da: 1981 eta 1986ko biztanleen zentsua eta erroldak konparatu ondorenean, erdaldungoaren portzioa mantendu egin dela esan daiteke.


Hildo berean, jatorrizko hizkuntza gaztelera bakarrik izan dutenen artean, gehiengo bat (% 79,50a) ez da euskara ikastera iritsi, euskara ongi ikastea lortu dutenak % 3,24a besterik ez delarik.

## LEKU PUBLIKOETAKO EUSKARA MINTZATUAREN PRESENTZIA



Iturria SIADECOn 1989ko txostena

# EUSKAL EREDUETAN MATRIKULATUTAKO HAURRAK



**Iturria: SIADECOn 1989ko txostena**

Aurreko azalpen horiek hiru ondorio nabarmen, besteak beste, ateratzera eramane naute:

\* Gaur egun 10.000 (hamar mila!!!) euskaldun baino gehiago izan arren, euskarak ez du pisu espezifikorik herriaren bizitzan.

\* Gure herrian euskararen erreproduktzioarako mekanismoek daramaten abiada ez da euskal hizkuntzaren normalizazioarako nahikoa. Horrela, adibidez, gaur egun irakaskuntza jokatzen ari den paperak ez du normalizazio hori ziurtatzen.

\* Galtzen ari da egun batean euskara ikasi eta erabiltzeko motorra izan zen hizkuntz kontzientzia.

Badira, bestalde, 12 eta 9 urte, hurrenez hurren, Euskal Autonomi Estatutua eta Euskararen Oinarrizko Legea indarrean jarri zirenez geroztik. Nik jaso dudana inpresioa, lortu diren emaitzak gutxietsi nahi izan gabe, urte guzti hauetan eta gure udala eta udalerrian, euskararen normalizazioaren emaitza hobek eskuratu ahal izan direlako izan da. Baina ez da horrela izan. Geure buruei zergaitiak galdetuz gero, erantzun desberdinekin topa dezakegu: ez zaiola eman beharreko lehentasuna (edo gutxienez garrantzia eskeini); ez dela jakin Euskara Zerbitzua udal organigraman behar bezala kokatzen; euskaldunok utzikieriaz jokatuta ote dugun; Euskara Zerbitzuari atxikitako eginkizun eta betebeharrak ez direla nahi adina garatu; agian, behar zen borondate politikoa gardena ez dela egon, berori hizkuntz normalizazio prozesuetan ezinbestekoa delarik; errenteriarren artean gaztelararen inertiak pisu handiegia duela;...

Ezinbesteko da Udalaren zeregina hizkuntzaren normalizazioan, eta horretan duen erantzukizuna hirukoitza da: errenteriarren borondateari erantzun egokia eman, udalerriko euskararen normalizazioaren aldeko politika sendo eta sektoriala (merkataritza, lan mundua, atsedendia, gizarte zerbitzuak,...) markatu, eta azkenik legeria bete araztea (1).

(1) Aipa daitekeen erreferentziako legeria honakoa litzateke:

a. 10/1982 oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilpena arauzkotzekoa.

b. 250/1986 Dekretua, azaroaren 25koa, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Herri Administrazioetan Euskararen erabilera eta normalizazioa arautuz.

c. 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.

d. 224/1989 Dekretua, urriaren 17koa, Euskal Autonomi Elkarteko Herri Administrazioetan Euskararen erabilera normalitzeko plangintza arautzen duena.

e. 264/1990 Dekretua, urriaren 9koa, Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapenerako Sailburuarena, lanpostuei ezarritako hizkuntz eskakizunen derrigortasuna zehazteko erizpideak finkatzen dituena.

Gure hizkuntzaren kontra diharduen elementua, hizkuntz inertzia da. Horrela, inertzia hau eguneroko gertakarietan islatzen da: etengabe kalean, lanean, etxean hizkuntz kodeaz aldatzea, hizkuntz idatziari dagokionez ere euskaratik gaztelaniara pasatzea (instantziak, bankuetako eragiketak,...), eta hemen administrazioa eta administratuen arteko idatzizko harremanak azpimarratu behar dira. Guzti hori ebitatzen has daiteke, eta horretan administrazioak eginkizun erabakiorra du, zeren eta, gureta bakoitzak daukanaz gain, hiritarra maiz hurbiltzen den zentru gestioztatuak izanik, bertan mintzo den hizkuntzak irudi ona izaten bait du (prestigioa). Parrafo honetan aipatutakoaren harrian, kontutan hartu behar da irakaskuntzan matrikulatzen diren haurrek ez dutel arazorik izante gaztelania ikasteko, pertsona askok uste dutenaren kontra; alderantziz, nahitaez inguruaren presio linguistikoaren ondorioz gaztelararen ikaskuntza ziurtatua dutela.


Gure Udalean burutu beharreko hizkuntz normalizazio prozesuari dagokionez, zenbait dekretuk langileen plantilla eta Udala-herritarren arteko harremanak euskalduntzeko mekanismoak ezarri dituzte. Kontutan hartuta indarrean dagoen legeriaren arauera 5 urtetako normalizazio planak (plangintzaldiak) egin behar direla, lehenengo plangintzaldia 1990eko urtarrilaren 1etik 1994eko abenduaren 31ra bitartekoa izanik, eta udal

enplegatuen euskararen derrigorrezko ezagutza-mailak (hizkuntz eskakizunak izenekoak) azken data hori baino lehenago eskuratu behar direla, legez ezarritako datan plangintza hasteko behar zen ahalegina burutu ez dela antzeman daiteke.

Euskara Batzordeak antolatutako iharduera eta ekitaldiak ugari dira, baita emandako laguntzak ere: Maddalen sariak, Errenteriako azterketa soziolinguistikoa (Siadecoren txostena), eskolaorduz kanpoko euskara klaseak, "Euskara eta Kirola kanpaina", euskarazko kultur ekintzak, e.a. Guzti hauek beharrez

koak dira eta hizkuntz normalizazioaren bideari jarraitzen diote. Komeni da, dena den, ahaleginak egitea, pertsona helduei eta jendearen egunerokotasunari intentsitate handiagoz heltzeko. Zergatik? Helduek herriaren bizitzan duten pisua nabarmena delako, eta euskararen iraupena hizkuntzaren eguneroko erabileran jokatzen dugulako. Hauen hildotik, helduentzako kanpainak (ahozko erabilera, irakurketa, e.a.ri. dagozkionak), alfabetatze-euskalduntze kanpainak, gizarte zerbitzuak euskalduntzeko kanpainak, e.a. ere antolatu beharko dira, eguneroko erlazio administratiboak, ahozkoak zein idatzizkoak, euskaraz eragitea ahaztu gabe.

## ERRETERIARRREN EUSKARAREKIKO TIPOLOGIEN BANAKETA



### Iturria: SIADECoren 1989ko txostena

- (A) \* Euskaldun errealak eta epe motzean potentzialak.  
\* Jatorriz edo ikasketaz euskara ikasi dutenak edo ari direnak.
- (B) \* Erdaldun errealak eta epe motzean potentzialak.  
\* Jatorriz edo hizkuntzaren galeraz erdaldunak direnak edo erdalduntzeko bidean daudenak.

Egindako lanaren balorazioa positiboa izanda ere, tamalgarrria da, artikulua idatzi den garaian (1991ko maiatzean) Errenteriako udal enpleguak euskalduntzeko plangintza onartu ez izana, normalkuntza prozesua atzeratuko bait da (gainera ere Korporazio aldaketa kontutan hartuta) eta, honetaz gain, suposatu dezakeenagatik: legeria ez betetzea, errenteriarren aspaldiko eta oraingo euskararekiko aspirazio historikoa gauzatu ez dela ikustea, e.a.

Gaur egungo egoeraren analisia egin ondoren, nere ustez Euskara Batzordea zuzenduko duen zinegotziak zein Udalak jarraitu beharreko hildo nagusiak honako hauetara egokitzea ezinbestekoa izango da, hurrengo urteetan eta gutxienez ondorengo agintaldian, hizkuntz normalizazioaren arazoari modu racionalean aurre egin nahi bazaio:

1.- Administrazioan euskara erabiltzearen normalizazio plangintzaren onarpena: hizkuntz eskakizunak, zirkuitu elebidunak, ikastaroak, erlazio ahoz zein idatzizko administratiboak (herri-tar, kanpoko erakunde, e.a.ekin),...

2.- Errenteriako gizarte mailan euskara normalizatzeko plangintza egin eta martxan jartzea.

3.- Euskara Batzordea gizartearen partizipazioari eta pertsonen aportazioei irekita egotea.

Hainbat errenteriarren asmoa gauzatu has dadila, euskara egunero eta egun osoko hizkuntza bihurtuta, kalean zein etxean, lantokian zein kontsulta medikoan. Aldi berean, ez ahaztu aspaldian K. Mitxelena linguistikak gaitzetsi zuen "liberalismo linguistikoa" delakoa (hizkuntzaren berreskurapena gizartearen inertzia eta inolako eskuhartzerik gabe lagatzea), hiztunaren utzikeriarekin batera, euskararen berreskurapenerako oztopo arriskugarria dela. Gure hizkuntzaren etorkizuna zai dugu... eta guztion lana da.